



Sestao, 2011ko otsailaren 9a

### ELKARTU DIRA

**JOSE LUIS MARCOS MERINO** jaun txit argia, **SESTAOKO** alkatea.

**IÑIGO LAMARCA ITURBE** jaun txit gorena, Arartekoa, Eusko Legebiltzarreko mandataria.

### ESKU HARTU DUTE

**JOSE LUIS MARCOS MERINO** jaun txit argiak, **SESTAOKO** Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa, 2011ko otsailaren 9ko ohiko bilkuran Udaleko Gobernu Batzordeak agiri hau sinatzeko baimena berariaz eman ondoren.

**IÑIGO LAMARCA ITURBE** jaun txit gorenak, 1997ko ekainaren 23ko Ararteko erakundearen Antolaketa eta Funtzionamenduko Erregelamenduko 8. artikulua –52.arekin lotuta – eman dizkion eskumenak baliatuta.

Erakundeen arteko harreman guztietan beharrezkoak diren koordinazio, lankidetzeta eta elkarrekiko errespetuaren printzipioei jarraituz, elkartuek **LANKIDETZA HITZARMEN HAU** sinatzeko behar den lege gaitasuna aitortu diote elkarri, eta horren ondotik honako azalpenak egin dituzte.

### AZALDU DUTE

1. Udaleko administrazioaren printzipioetako bat herritarrei eskaintzen zaizkien laguntza eta arreta zerbitzuak hobetzea da. Horiek, besteak heste, udalarekin dituzten harremanekiko beren kexak, erreklamazioak edo iradokizunak



aurkezteko eskubidea dute, udaleko zerbitzu publikoen funtzionamenduari dagokionez.

II. Arartekoa Eusko Legebiltzarraren goi mandataria da, administrazio publikoekiko harremanetan herritarren oinarrizko eskubideak defendatzeko eta zaintzeko izendatua, eta haren eginkizuna nagusiki Administrazioa kontrolatzea da, herritarrek ongi administratuak izateko duten eskubidea eta legezotasun printzipioaren bermea gordetzearen, eta beti zainduz Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuko 9. artikuluan jasotako antolaketa demokratikoaren oinarri orokorrak betetzen direla.

III. Eginkizun hori betetzean –administrazio publikoen jarduera publikoa ongi bideratzen dela zaintzea–, Arartekoaren ikerketa ahalmen eta botereen esparruan sartuta daude EAEko udal guztiak, eta beraz, baita Sestaoko Udala ere.

IV. Sestaoko Udalak Ararteko erakundeari zinez lagundu nahi dio herritarrek administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak eta askatasunak defendatzen, Arartekoak bere eginkizunak dagokion independentziaz eta eraginkortasunez bete ditzan.

V. Arartekoaren ahalmenak eta eskumenak egintzetan ondo gauzatzeko garrantzi handia dauka bi erakundeon artean koordinazioa eta lankidetzaren bideratzeak, komunikazio eta harreman sistema egoki bat ezarriz. Horregatik, ondoren ezartzen diren klausuletan zehazten den LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzea adostu da.

## KLAUSULAK

### BAT Xedea

Hitzarmen honen bitartez, Sestaoko Udalaren eta Ararteko erakundearen arteko lankidetzaren esparrua zehaztu nahi da, erakunde honen jarduerak beharrezko dituen lastertasun eta eraginkortasunaz bidera dadin, horrela, jarduera administratiboan eta



ematen diren tokiko zerbitzu publikoetan administratuen eskubideak berma daitezen, objektibotasuna eta eraginkortasuna zainduta.

### BI Aplikazio eremua

Sestaoko Udalak hitzematzen du hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunetik aurrera arau batzuk ezarriko dituela Arartekoak bidaltzen dizkion kexak, informazio-eskaerak, errekerimenduak eta gomendioak bideratzeko eta kontrolatzeko sistema orokorrean (hitzarmenak bere baitan hartuko ditu udal horren mendeko erakunde autonomoak eta gainontzeko erakunde publikoak ere). Horiek guztiak Arartekoak ofizioz edo alde batek eskatuta hasitako jardueren ondoriozkoak izan daitezke eta lankidetzaz hitzarmen honetan jasota daude.

### HIRU Espedienteak izapidetzea

Ararteko erakundeak aurreko klausulan aipatutako jardueri buruzko idatziak udalari bidaltzen dizkionean, udalak berak horretarako izendaturiko erakunde edo kargudunaren bidez (hitzarmen honen eranskinean koordinatzaile gisa agertzen da) izapidetuko dira. Hark dagokion sailari edo erakundeari helaraziko dizkio behar den informazioa, dokumentazioa edo erantzuna eskuratzeko, eta ondoren, eskakizun formalak bete direla egiaztatu eta gero, Ararteko erakundeari bidaliko dizkio.

Adostutakoa modurik eraginkorrean bete dadin, hitzarmen honen eranskinean agertzen da sailen, ardura duten kargu politikoen eta mendeko langile teknikarien zerrenda.

Helbide elektronikoak ere adierazi dira, horien bidez komunikazio arinagoa lortzeko, egoerak hala eskatzen duenean, nahiz eta jakinarazpen ofizialak ere egin.

Hitzarmen honen eranskinean agertzen diren datuetan aldaketarik egiten bada, Ararteko erakundeari jakinaraziko zaio.



**LAU- Presakotzat edo arreta berezikotzat jotzen diren espedienteen tramitazioa**

Ararteko erakundeak, presagatik edo kexak eduki berezia duelako beharrezkoa deritzonean, udaleko sailarekin edo erakundearekin zuzenean tramitatu ahal izango du espedienteak.

Hala eta guztiz ere, Ararteko erakundeak gestio berezi horren berri emango dio udalak izendaturiko koordinatzaileari, dagozkion ondorioetarako.

**BOST Harreman eta komunikazio organoak**

Hitzarmen honetan aurreikusitakoa bete dadin, administrazio-sail edo erakunde autonomo bakoitzeko arduraduna jarriko da harremanetan udalak izendaturiko koordinatzailearekin, eta arduradun hark aztertuko du Arartekoaren esku-hartzea eragin duten gaien bilakaera.

**SEI Laguntzeko betebeharra betetzea**

Ararteko erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntzeko betebeharra bete dadin, administrazio-sailek edo erakunde autonomoek lehentasunez eta albait lasterren bidali behar dituzte Ararteko erakundeak eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide guztiak.

**ZAZPI Ikerketen bukaera jakinaraztea**

Arartekoak, ikerketen emaitza kexagileari jakinarazi eta gero, udalari ere ikerketak bukatu direla adieraziko dio, udalak berak izendaturiko koordinatzailearen bidez, otsailaren 27ko 3/85 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– 31. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Udalak izendaturiko koordinatzaileak dagokion administrazio-sailari edo erakunde autonomoari jakinaraziko dio ikerketak amaitu direla.



#### ZORTZI Datu pertsonalak

Udalaren zerbitzu publikoez Arartekoari kexak egiten dizkieten herritarren datu pertsonalak erabateko isilpekotasunaz eta datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia errespetatuz erabiliko dituzte datu horiek erabiltzeko baimena dutenek.

#### BEDERATZI Eraginkortasuna

Hitzarmen hau sinatzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Eta aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, bi aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dute –bi ale eta ondorio bakarrarekin–, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

SESTAOKO UDALAREN ALDETIK

José Luis Marcos Merino

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ALDETIK

Iñigo Lamarca Iturbe



## ERANSKINA

- **Sestao Udalak Arartekoaren kexak bideratzeko izendatu duen koordinatzailea:**

Arduradun politikoa: Sestaoko Udaleko alkate presidentea, José Luis Marcos Merino jauna.

Arduradun teknikoa: Alkatezako idazkaria, Carmen Fernández Villamandos andrea.  
e-mail: [cfv@sestao.net](mailto:cfv@sestao.net)